



PROIEKTU DEIALDIA « EUROESKUALDEKO HIRITARTASUNA » 2022 MAIZ EGINDAKO GALDERAK

- ❖ **Hiru lurraldeko bazkideak gara eta proiektuaren ekintza bat edo ekintza guztiak Euroeskualdeko lurraldearen kanpotik eraman nahi ditugu. Hautagarriak izaten ahal gara?**
Bai. Hala ere, proiektuaren egokitasunari eta lurraldeari ekarritako gainbalioari kasu eman behar da.
- ❖ **Proiektuaren %20a autofinantzaketa izan behar da, erran nahi ote du proiektua ez dela diruztatua izaten ahal %100a kanpoko iturrietatik?**
Bai. Kanpoko iturriek, proiektuen %80a soilik diruztatzen ahal dituzte, gelditzen diren %20ak partaideen diruzaintzatik etorri behar dira.
- ❖ **Ikerketa proiektuak hautagarriak ote dira?**
Bai. Hala ere, ikerketaren gaia lotua izan behar da proiektu deialdiaren arlo bati.
- ❖ **Unibertsitateak hautagarriak dira?**
Bai.
- ❖ **Zein prozedura segitu behar da nire hautagaitza proiektu deialdian aurkezteko?**
Proiektu deialdiako webgunean diren dokumentu guztiak bete behar dira : <https://www.euroregion-naen.eu/eu/proiektuak/euroeskualdeko-hiritartasuna-proiektuen-deialdia/proiektua-aurkeztu/>. Proiektu fitxari dagokionez, Euroeskualdearen hiru lan-hizkuntzetan idatzia izan behar da. Gainera, formularioa bete behar da hautagaitza bukatzeko.
- ❖ **Autonomo batek parte hartzen ahal du proiektuan?**
Independenteak eta autoenpresariak ezin dira proiektuen taldeburuak izan baina bazkide gisa parte hartzen ahal dute proiektuan.
- ❖ **Proiektu eramaileentzat hitzordu bat hartzea proiektua azaltzeko posible ahal ote da?**
Bai eta Euroeskualdean aurkeztea gomendatua da.



- ❖ **Zein da emana izaten ahal den gehienezko dirua proiektuka ?**
Proiektu deialdian, Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdeak, proiektuko kostuaren %50 diruztaten ahal du, 30.000€tara mugatuta. Gutierrez, proiektuaren %20a autofinantzatua izan beharko da. Dirua bi aldiz banatua izanen da, %40a hitzarmenaren unean lehen aldian eta %60a proiektuaren bukaeran.
- ❖ **Kontulariaren kostuak ordainduak ote dira?**
Ez. Bakarrik proiektuarekiko gastuak kontutan hartuak dira.
- ❖ **Liburu baten argitalpenari (egile eskubidea, inpresioa) lotutako gastuak ordainduak ote dira?**
Bai.
- ❖ **Abokatuei lotutako gastuak (oinarri juridikoen idazketa) ordainduak ote dira?**
Proiektuaren edukirako kanpoko prestazio bat baldin bada, kostu hau hautagarria da. Faktura bat beharko da, bazkide bati izendatua.
- ❖ **Eskudirutan egindako gastuak ordainduak ote dira?**
Bai, egiaztagiriak emanez.
- ❖ **Euroeskualdeak laguntzen ahal du hautagaitzako txostenen itzulpenean?**
Euroeskualdeak ezin ditu itzulpenak egin proiektu eramaileentzat. Proiektu garaian egindako itzulpenak, hautagarriak izan daitezke ondoren.
- ❖ **Proiektu eramaileak ez baldin badute denbora aurtengo proiektu deialdian parte hartzeko, posible ahal ote da heldu den urtean aurkeztea?**
Bai, proiektu deialdia urtero izanen da. Data berdinetan izanen da, gutxi gorabehera.
- ❖ **Bazkide bat bilatzen dugu (gure kasuan Nafartarra), nola dei bat egiten ahal dugu?**
Euroeskualdeak, bazkideak harremanetan jartzen ahal ditu nahi badute eta zailtasunak baldin badituzte eskas diren bazkideak aurkitzeko. Hala ere, haien proiektuaren ideia zehatza eta geroko bazkidea(k) gogoan ukan behar dituzte. Euroeskualdeako gobernuen kanpo-ekintzek ere laguntzen ahal zaituztekete zeregin horretan.
- ❖ **Gidaliburu pedagogikoen itzulpena gastu hautagarria ote da?**
Bai.
- ❖ **Euroeskualdeak komunikazio fisiko tresnak (digitalak ez direnak) hornitzen ahal ditu?**
Euroeskualdeak bere komunikazio tresnak baditu baina proiektuaren bazkideek haien komunikazio tresnak mobilizatu beharko dituzte, kakemonos eta beste izan dadila.
- ❖ **Bazkide batek hainbat proiektutan parte hartzen ahal du?**
Bai, baliteke. Hala ere, Euroeskualdeak ahalik eta aktore kopuru handiena finantzatzera saiatzen da.



- ❖ **Lgbt-fobien prebentzioa, gizarte-erronka garaikideetan sartzen ote da?**
Oui.
- ❖ **Euroeskualdetik kanpo diren bazkideak egiaztatu behar ote dute haien parte hartzea eta nola? Izenpedura batekin, dokumentu gehigarri batekin?**
Euroeskualdeko inguruan diren kanpoko lurraldeak ezin dira proiektuaren bazkideak izaiten ahal. Aldiz, aurrekontuan ez diren ekintza puntualen bidez parte hartzen ahal dute.
- ❖ **Justifikazioa aztertua, jakinarazia eta diruztatua izaiteko, zenbat denbora behar da?**
Jasotako proiektuen kopuruaren arabera egina izanen da baina dena egina da ahalik eta lasterren. Ordainketarentzat, Frantziako Altxortegiaren arabera egina izanen da zeren haiek dute ordainketa egiten. Euroeskualdeak arau desberdin horiei moldatu behar da.
- ❖ **Bazkide guzietan parte hartu behar dute autofinantzaketan?**
Bai, era batera edo bestera, nahiz eta aurrekontu bat egon.
- ❖ **Elkarteek parte hartzen ahal dute proiektuan?**
Bai.